

**EZTABAIDATZEKO
BARRUKO MATERIALA**



DOKUMENTAZIO
ZENTROA

101020104

ETORKIZUN HANDIKO EKINTZA SINDIKALA



1994ko MAIATZA

EKINTZA ERREIBINDIKATIBOA

EKINTZA ERREIBINDIKATIBO BAT EZTABAIDATZEKO PROPOSAMENA

Aurtengo urtean sindikatu bezala gertaera askotan hartu dugu parte eta asko dira baita ere estaduko gobernuak ekonomi, sozial nahiz lan arloetan hartu dituen neurriak.

Pentsatzen dugu gure ekintza sindikalari buruzko gogoeta bat egiteko eta egin duguna ebaluatzeko une egokia dela eta baita lan-baldintzen narriadurari, lan-harremanen estatalizazioari, desindustrializazioari, eta abarri nola egin behar diogun aurre planteiatzeko unea ere badela.

Aurkezten dizuegun lanaren helburua eztabaidaren euskarri izatea da. Beraz, garrantzitsuena ez da lana bera, militanteen artean sor dezakeen gogoeta eta eztabaida baizik.

Badakigu ekintza sindikalaren dinamikak buru-belarriko lana eskatzen duela eta eguneroko lanak askotan galerazi egiten digula egiten ari garenari buruzko gogoeta bat egitea, baina ezin dugu ekintzan itsu-itsuan ihardun geure partehartzea ardatz orokorrago, zabalago batzuen funtzioan baloratu eta proiektatu gabe, hau da, finean Euskal Langileriaren Mugimenduak askatasun nazional eta sozialean ezinbesteko partaide izan behar du.

Beraz, lanak eskuhartzearen ardatzak zeintzuk izan behar duten eztabaidatzeko bidea ireki nahi du eta baita sindikatuaren sekzio bakoitzean eta bereziki sekzio sindikaletan gogoeta sakonak egiteko ere, enpresan, arazo orokorretan nahiz puntualetan, gure postura zein izan behar den zehazteko.

AURKIBIDEA

1.- KOIUNTURA - APUNTEAK	3. Orrialdea
2.- GURE ERANTZUNA	3. Orrialdea
3.- ETA 27 IGARO ETA GERO ZER?	5. Orrialdea
4.- LABen PROIEKTU SINDIKALA	6. Orrialdea
5.- BEREHALA EGIN BEHARKO LANAK	12. Orrialdea

1.- KOIUNTURA-APUNTEAK

1-1.- Euskal Komunitate Autonomoetako gobernuen laguntzarekin Estatuaren politika ekonomikotik E.L.M.aren aurka garatzen ari diren **erasoak**, ondorengo puntuotan laburbil genitzake:

a) Lan-indarraren devaluazioa.

Bi mailatan:

b) Kili-kolo dagoen ongizatea hankaz gora botaz.

- Prestazioak murriztuz.
- Gizarte-Segurantzza neurri handi batean pribatizatuz.

c) Indar korrelazioaren balantza **zentralizazio eta enpresarioen aldera daraman lan-harreman sistema bat bultzatuz.**

- Lan-harremanen estatalizazioa.
- L.E.aren erreforma aldebakarrekoa bultzatuz, lan-harremanak desarautu, mugikortasuna eta indibidualizazioa sustatuz.
- Produktuen ordenazioan botere guztia enpresariei emanaz.

Hori guztia kapitalaren balorizazio-esparruan estatu espainiarrak bultzatutako proiektu ekonomiko eta sozialaren barruan.

1-2.- Neurri hauek ideologia neoliberalista baten aitzakiapean hartzen dira. Ideologia honen arabera:

- Gaur egungo **krisia soldaten gastu haundien eta prestazio sozialen gastu altuen ondorio da.**
- **Konpetibitatea** da nazioarteko harremanetan elementu fidagarri bakarra eta hau euren iritziz produktibitatea igoz bakarrik lor daiteke; izan ere beste kausa historiko, teknologiko, kultural edo patronalaren jokabideak eragindako arazoek eragindako arazoak aztertu gabe, den-dena **soldata baxuekin parekatu nahi da.**
- Politika ekonomikoa zuzentzen dutenentzako **konponbidea** merkatuan dago. Hau da, merkatua da hain zuzen, beren iritziz, etorkizuna izango duen proiektu bat garatzeko gai den bakarra; ondorioz, baliabide sozialak euren esku jarri behar dira eta **langileek jasaten duten esplotazioa gehitu egin behar da, langileengandik ahalik eta plusbaliorik, zuzena nahiz zeharkakoa, handiena lortzeko.**

1-3.- Politika ekonomikoaren eredu honen defentsan gobernuak hartzen dituen neurriek giarte-eredu bikoitza, eta punturik garrantzitsuenetan gero eta zentralizatuagoa eta formetan gero eta azalekoagoa den politika-harreman sistema inposatzen dute.

Beraz ez dugu krisi ekonomikoa bakarrik jasaten, krisi politiko eta soziala sakona ere badugu eta krisi honetan Estatuak eta erakunde demokratikoak dira kapital mutinazionalaren interesen batzorde betearazle, eta ekintza soziala eta sindikala kapitalaren mugimendua oztopatzen duena **eta baliabiabideak gero eta esku gutxiagotan pilatzearen erruduna.**

2.- GURE ERANTZUNA

2-1.- 93ko otsailean gobernu eta patronalaren iharduerak zeintzuk izango ziren susmatuta, LABek gogoz hartu zuen parte ELA eta CCOOekin lortutako sindikatuarteko akordioan eta aktiboki lagundu genuen aurrera eraman genituen

1-1.- PSOE, PNV eta UPNk bultzatzen duten politika laboralen oinarriak hauek dira:

- Lan-indarra devaluatzea, kili-kolo dagoen ongizate-egoera hankaz gora botatzea, enpresariarentzat mesedegarriagoak diren lan-harremanak bultzatzea. Eta hori guztia estatu espainiarrak bultzatutako proiektu ekonomiko eta sozial baten funtsezko zati bezala hartuz.

1-2.- Neurri hauek neoliberalismoaren ideologiaren aitzakiapean hartzen dira.

1-3.- Beraz, esparru ekonomiko, politiko, sozial eta laborala ere hartzen dituen krisi sakona ari gara jasaten.

mobilizazioak arrakastatsuak izan zitezen.

Halere une haietan iharduera sindikalari sakontasuna emango zien pieza batzuk falta zitzaizkion. Poliki-poliki hasi ginen jakiten zeintzuk ziren gobernuaren proposamenak lan-harremanen arloan; jakina, bere esanetan, egoera ekonomiko eta sozial larriari aurre egiteko hartu zituen neurri horiek.

Ohartu ginen egoerak eskatzen duenaren aurka, bestalde ezinbestekoak ekonomia susper dadin, gobernuak atzerapen eta produktibitatearen aldeko apustu egin zutela lan-kostuak jaitsiz, eta eskala-ekonomia, lan-indarraren balorazioa, azpiegiturak eta aberastasun kulturalak eta sozialak batera kontutan hartu gabe.

2-2.- Gure aldetik ezinbestekoa zen erantzun sindikala ematea, hauexek izan ziren erantzun horiek:

- a) Politika ekonomiko, laboral eta sozialaren funtsezko elementuak salatzea.
- b) Lan-harremanen alorrean gobernuak ezarri nahi zituen aldaketak estrukturalizat definitzea.
- c) Ongizatea suntsitzeak, lan-merkatuaren erreformak eta lan-erreformak bideratzeko neurriek diseinu ekonomiko eta sozialarekin zuten harremana ikustea.

2-3.- Guk une horietan genuen erantzuna argi eta garbi zegoen:

- Euskal Langileriaren Mugimendutik politika ekonomiko eta sozialari erantzun gogorra ematea, **Greba Orokorra** barne.
- **Euskalerritik ekintza bateratua bultzatzea**, egoera horri aurre egiteko indarrak batuko zituen ekintza hain zuzen ere.

2-4.- Hain justu ere gobernuaren proposamenak eta itun soziala aurrera ateratzeko ilusio ezak utzi zuten, otsailean, CCOO akordiotik kanpo eta bere sindikatuak Madrildik ezarritako bideari jarraitu behar izan zion. Euskadin CCOOek ez du nahi izan edo ezin izan dio Euskalerriko egoerari aurre egin eta erasoaren pareko erantzun sindikal bat emateari uko egin dio. Une horretan ekintza sindikala ez zen ituna bai ala ituna ez, baizik eta mobilizazioa; beraz, ELA, CCOO, eta LABen arteko ekintza sindikal bateratua apurtzea nahitaezkoa zen CCOOek agertzen zuten uneoroko kontraesanen aurrean.

Ekintza bateratu hau, gure sindikatuak horrela nahi ez bazuen ere, Euskadiko CCOOek, estatu osoan UGTk eta CCOOek sinatu zuten ituna indartu nahi izan zuelako apurtu zen, estatuko sindikalgintza ahulezia ikusgarria pairatzen ari den egoera batean, bere ekonomia eta legitimotasuna guztiz estatuko botereen menpe dagoen une batean.

2-5.- Guk, politika ekonomiko eta laboralean, estatuko sindikalgintzaren eta gobernuaren arteko adostasunak aldaketarik txikiena ere oztopatu egiten zutela ikusita, apostu gogorra egin genuen euskal sindikalgintzak bere indarra eta gaitasun alternatiboa erakutsi zitzan.

Honegatik egin zen egun bat gerorako greba orokorrerako deia. Apostua arriskutsua zen, baina merezi zuen, are eta gehiago kontutan izanda grebaren ondoren UGT eta CCOOen dinamika, ekintza sindikal mailan, estatu mailako esparrua indartzea izango zela.

ELA eta LABen arteko ekintza bateratua berriegia zela kausa, **ELAk zuen beldurra zela kausa eta tamaina horretako schok sindikala sortzeko prestatzeko genuen denborarik eza zela kausa ez zen 21E aurrera atera.**

Baina egin genuen apustua ez da alferrikakoa izan eta horri esker alde batetik

2-1.- Egoera honek suspertze ekonomikoaren aldeko neurriak eskatzen zituen bitartean, atzerapenaren eta alokairu-kostuen murrizketaren aldeko erabakiak hobetsi ziren; produkzio-bilbearen eta produkzio sozial egoki baten defentsa batera kontutan hartu gabe.

2-3.- Ezinbestekoa zen, beraz, Euskal Herriaren esparruan erantzun gogor bat ematea: Greba Orokorra eta ekintza sindikal bateratu eta egoki bat.

2-4.- ELA, CCOO eta LABen arteko ekintza sindikal bateratua CCOOek apurtu zuen bere ekintza sindikalaren marko bezala Espainiako esparrua hartuz.

2-5.- Guk apostu gogorra egin genuen euskal sindikalismoak bere indarra eta gaitasun alternatiboa erakutsi zitzan.

Hegoaldean greba orokorrerako egin zen deialdia ezberdina izan zen, kalitate zein kantitate aldetik, estatukoarekin alderatuz eta bestetik ELA eta LAB konturatu gara estatuaren neurriei euskal esparrutik erantzun behar diegula.

2-6.- ELAREKIN EKINTZA SINDIKAL BATERATUA. Ekintza bateratu honekin norbaitek irabazi baldin badu, hori euskal langileriaren mugimendua izan da, ekintza sindikalaren lehenengo planuan jarri delako euskal langileen protagonismoa, planteiatu ditugun errebindikazioek E.L.M.ari gaitasun alternatibo handiagoa ematen diotelako eta nahiz oraindik bi sindikatuon artean ezberdintasunak izan, bi aukera ezberdin E.L.M.aren alde elkarlanean hasi direlako.

Ekintza sindikal bateratua oso positiboa izan da gure sindikatuarentzako, gure planteamendu sozio-politikoak ekintza bateratuaren edukinetan jasota daudelako; sinisgarritasun sindikal eta sozial handiagoak ditugu eta gure proiektu sindikala garatzen jarrai dezakegu ezerk eta inork hipotekatu gabe.

Ekintza sindikal bateratuak defentsiban jarri ditu gobernu autonomoek dituzten politikak.

Proiektu ekonomiko eta sozialek itokinak dituzte alde guztietatik eta euskal sindikalgintza erakundeek eta berauek mantentzen dituzten partiduek ez bezalako seriotasuna, zintzotasuna eta sinisgarritasuna irabazten ari da.

Enpleguak eta sare produktiboak atzera egingo dute datozen hilabeteetan eta ekintza sindikal bateratua funtsezko tresna dugu egoerari aurre egiteko.

Azken finean, egun euskal langileen mugimenduak indarrez jaso du eraikuntza nazionalaren bandera eta bere baitatik sortzen dira alternatiba sortzaile eta berriztatzaileak aipatu eraikuntza nazionala edukin solidario eta demokratikoz hornitzeko.

Argi dago gauza guztiek ez dutela funtziona zezaketen bezain ondo funtzionatu eta gure baliabideak hobeto antolatu izan bagenu gure errentagarritasuna era handiagoa zatekeela. Hasiera batean noraezean bezala ibili gara apustua nolakoa zen ikusita; zenbait iharduera puntualetan organizazio falta txiki bat nabaritu dugu eta ikasi beharrean gaude komunikazio alorrean eta mezuen pedagogian. Halere, aurrera eramán dugun ekintza sindikala funtsean oso positiboa izan da.

3.- ETA 27-E IGARO ETA GERO ZER?

3-1.- 27ko greba orokorraren ondoren UGT eta CCOOentzako azaltzen den panorama hau da: kitto, guk geurea egin dugu. Estatuko botereekin dituzten harreman korapilotsuak eta ekonomikoki beren menpe egoteak, greba orokorrak bere ordezkaritasuna zertxobait gehitzea ekarri die eta hori gobernuarekin itun soziala sinatzeko erabiliko dute, jakina deklaratu gabeko ituna; hori dela eta azaleko aldaketaren bat sartuko dute politika laboralean, erakunde sindikal estatal bezala duten estatusa gorde eta indartzearen truke.

Langileen interesak, hauek ekintza sindikaletan aktiboki parte hartzea edota gehiagi burokratizatzea eta probintzi mailan hitzarmen kolektiboak desagertzea ez dira nahikoa arrazoi PSOEkiko dituzten menpekotasun politiko eta ekonomikoak apurtzeko.

Greba aurretik esaten genuena: UGTk eta CCOOek beren superbibentziarako administratu nahi dituzte grebaren emaitzak.

Gobernuaren ikuspegitik begiratuta, patronalari hitza emanda dionez, aurrera eramango ditu aurrikusitako erreformak eta ez du politika ekonomikoa aldatuko eta ondorioz, etorkizun ekonomiko eta sozialeko bi aldagai nagusiak, hau da, enplegua eta sare produktiboa, gero eta okerrago joango dira.

2-6.- Euskal langileriaren mugimenduak eraikuntza nazionalaren ideia jaso du, eta hortik abiatuz sortu dira eraikuntza nazionalaren proiektuari edukin solidario bat eransteko alternatiba sortzaile eta eraldatzaileak.

3-1.- Ezberdintasunaren eta pobrezia-gehiakuntzak ekar dezake halako erreazio sakabanatu zenbait sortzea, eta horren bidez agerian geratuko da langileen eta, oro har, gizartearen premietatik oso urrun dagoen sistema ekonomiko eta politikoko baten ahulezia, eta aipatutako mugimendu horiek zuzendu beharko dituen ekintza sozial baten premia sortaraziko dute.

Gobernuak funtsean ez du aldatuko espainiako finantz kapitalaren eta berarentzako egokia den eraikuntza europarraren aldeko apustua.

Proiektu horren barruan ez dute lekurik autonomi estatutuek markatzen dituzten mailatik goragoko autonomiek eta ez dira biltzen kapitalaren baloraziorako gune egokitzat estatu espainarraren homogenozazioa atzera botako duten elementu politiko, sozial eta laboralak.

Euskal Gobernu Autonomoek, egun agintzen dituzten alderdiek zuzentzen dituzten bitartean ez dute bestelako apusturik egingo, ez diote aurre egingo Estatuak daraman politika ofizialari, horrek, apustu ezberdinak eta aurre egiteak orain defendatzen ari diren klase-opzioaren aldaketa suposatuko bailieke eta baita ekintza politikoa ekintza sozializat hartzea ere.

Gero eta ezberdintasun eta pobrezia handiagoak, lan-baldintzen narriadurak, ekintza politikoa gizartearengandik gero eta urrunago egiteak, ... errektzio inkotrolatuak sor ditzakete, gehienetan sakabanatuak, langileengandik eta orokorrean gizarte osoarengandik gero eta urrunago dagoen sistema ekonomiko eta politiko baten ahuleziak erakutsiko dituen izango da eta aipatutako mugimendu horiek zuzendu beharko dituen ekintza sindikal baten premia sortaraziko dute.

4.- GURE EKINTZA SINDIKALAREN PROIEKTUA

4.1.- IDEOLOGI ALORREAN.

Guk lagundu egin behar dugu Euskal Langileriaren Mugimenduak etorkizun handiko gizarte alternatibo baten eredu bat diseina dezan.

Euskal Langileriaren Mugimenduak eraikuntza nazionalaren proiektua planteiatzeko ardura du, gaur Estatuak inposatzen duenaren alternatiba gisa eta ekonomiaren internalizazioa deritzanari aurre egingo diona.

Gaur, inoiz baino gehiago, E.L.M.aren interesak eraikuntza nazionalaren proiektuan kokatzen dira alternatiba gisa, garapen-eredu gisa eta ekintza sozial demokratiko eta esku hartzaile gisa.

Gure iritziz, etorkizuneko proiektu horren **ardatzak ondorengoak dira:**

- Eraikuntza Nazionalako proiektu politiko eta ekonomiko baten aldeko apustua.
- E.L.M. baloratzea politika ekonomiko eta politika sozialaren zuzendaritzan agente aktibo gisa.
- Enpresa-eredua errotik aldatzea.
- Esplotazio-bide berriei eta gero eta handiagoa den babes ezari aurre egitea.

Helburu hauekin bat etortzeak suposatzen du:

- Gure iharduera sindikala birpentsatzea.
- Baliabide pertsonalak eta trebakuntza egokia hartzea.
- Parte hartze sindikal berriak bultzatzea.
- Eta kontutan hartzea ez dagoela alternatibarik gobernuen proiektu politiko, laboral eta sozialei aurre egiten ez badiegu.

Arlo honetan hutsuneak ditugu eta fronte ideologikoari berrekin behar diogu, berari esker izango baititu langileen mugimenduak euskal esparru ekonomikoa eta euskal sindikalgintza suntsitzeko darabiltzaten ahaleginei aurre egiteko arrazoiak.

Alde honetatik, lehenengo euskal esparru ekonomiko eta sindikal bat izatea, dinamika sindikal propioa garatzea eta helburu honen inguruan politika

4.1.- Euskal Langileriaren Mugimenduak eraikuntza nazionalaren proiektua planteiatzeko ardura du, gaur Estatuak inposatzen duenaren alternatiba izango dena: lehenengo lekuan, espazio ekonomiko sozial eta sindikal euskaldun baten beharra azpimarratuz, dinamika sindikal bereki bat, eta helburu horren inguruan bilduko den politika bat, borroka ideologiko horren giltzarri moduan.

bateratzaile bat, sindikala eta soziala aurrera eramatea izango dira borroka ideologikoaren oinarri.

Borroka ideologiko hau sarritan alde batera uzteagatik orain nolabaiteko etsipen, desilusio eta erosotasun bat dugu geure artean.

Estatuko sindikalgintzak jartzen duen aitzakiari, hau da ekonomiaren munduratzeari deritzana, kontra egin behar diogu; beren mezua hori onartzean datza, ez dago kritikarik, konformista da eta ez du interesik bereizten eta ezta munduko orden berria eta eraikuntza europarra bultzatzen ari diren presio-taldeak ere. Nahikoa dute estatuak superbizipenerako esparru sindikal bat uztearekin, gobernuak edota patronalak jokatzeko duen zelaian jokatzeko, horrekin aski dute.

Beraz, beharrezkoa da barne-gogoeta bat egitea, zeintzuk diren gure helburuak definitzea eta ekintza bateratuaren barruan helburu horiek nola defenda daitezkeen ikustea.

Nahitaezkoa dugu heldu diogun bideari ekitea eta sakontzea euskal sindikalgintzaren ekintzarentzako oinarrikoak diren bi kontzeptutan:

4.2.- LAN-HARREMANEN EUSKAL MARKOA.

27E-ren ondoren, 19F-a L.H.E.M. baten aldeko apustua izan da eta horrek estaduko eta autonomietako gobernuak ezarritako politika ekonomikoaren aurkako borrokari jarraipena eman dio.

Baina L.H.E.M.ak ezin du hemen eta horrela amaitu, jarraipena eman behar diogu.

L.H.E.M.a ez da kontsigna bat; lanerako bidea da eta ekintza sindikal bateratuari indarra emateko xehetu eta garatu egin behar da.

L.H.E.M.a ez da entelekia bat eta proiektio argia du ondorengo puntuotan:

- Hitzarmen kolektiboan.
- Lanbide-heziketan.
- Hauteskunde sindikaletan eta
- Euskalerriko administrazioek euren politika laborala eta soziala diseinatzeko duten gaitasun legislatiboetan.

Puntu hauen aurrean dugun jarrera honela laburbil daiteke:

4.2.1.- Hitzarmen Kolektiboa:

Negoziaketa-mahaien eraketa azkarra eta euskal esparruan.

Hitzarmen probintzialen defentsa sutsua eta ahal bada Hegoaldeko eremuak sortzea.

Hitzarmen kolektiboaren negoziazioarenak diren esparruak deuseztatzeari erantzutea, klausulen bidez hitzarmenak indartuz, esate baterako iraupen mugagabeko hitzarmenak eta hitzarmenetako artikuluetan lan-ordenantzak sartuz eta nagusiki mugikortasun funtzionalari eta geografikoari eta lan-baldintzen antolamenduari dagozkienetan.

Kontratazio, lanegun, soldata, opor eta abarrei buruzko modalitate berriei erantzun kontrol sindikalaren bidez, trebakuntza eta aldi baterako kontratuak edukin negatiboak indargabetu eta bere ezarpenaren aurkako jarrera azaldu.

Enpleguaren aldeko hitzarmen kolektiboa negoziazioa, honek esan nahi eguneko lanorduak gutxitu egin behar direla, ordu extrak desagertarazi egin behar direla eta enpresako pertsonalaren eta ekoizpenaren politika negoziatu egin behar dela.

4.2.- Lan-Harremanen Euskal Markoa
ez da kontsigna huts bat:
Negoziaketa kolektiboaren, ahalmen legegileen, Hauteskunde Sindikalen, Heziketa Profesionalaren, etab.-en bitartez sakondu eta garatu beharreko lanerako bide bat da.

Hitzarmenen eraginkortasun orokorra defendatu.

Proposamen orokor hauek zehazteko asmoz konbenioz konbenio eta sektoreka gogoeta sakonak egin beharko dira.

Horretaz gain **euskal esparruan konfederazioarteko akordio bat negoziatzeko** proposamena egiten dugu, hain zuzen ere euskal esparruan hitzarmen kolektiboaren eraginkortasuna babesteko balio izango lukeen akordioa.

4-2-2.- Lanbide Eziketa

Diru-bilketak eta diseinua komunitate autonomoetan egitearen aldeko errebindikazioa gure egiten dugu; prozesu guztietan kontrol sindikala izan dadila eta administrazio autonomo, sindikatu eta patronalaren artean beharizan sozial eta produktiboei buruzko L.H. bat negoziatzeko eskatzen dugu.

Hori dela eta ezinbestekotzat jotzen dugu **Lanbide-Heziketako Euskal Institutu bat**, Lanbide-Heziketa jarraian eta okupazionalen ahalmen guztiak izango dituen eta partaidetza arautuarekin.

Arlo honetan orain arte apenas izan dugun parte hartzerik eta gaur egun lehentasunezko zeregintzat daukagu L.H. batzorde baten eraketa, arazo guztiei aurre egiteko eta ekintza zehatzak eta orokorrak bideratuko dituen batzordea.

4-2-3.- Euskal administrazioak legislazio laborala erabakitzeko duen ahalmena, ezinbestekoa da Euskal enplegu-bulegoa eta Gizarte-Segurantza sortzea. Hauetan trebakuntza-diseinuak, prestazioak, kotizazioak eta planen burutzeak administrazioak eta agente sozialek negoziatu behar dituzte irizpide hauek jarraituz: elkartasuna, enplegua sortzeko fiskalizazio-erraztasunak eta enpresarioen irabazien kontrola eta banaketa.

Halaber beharrezkoa da euskal langileen estatutu bat negoziatzeko dauden aukerak ikertzea edota hori lortzeko zeintzuk diren egin beharreko aldaketa juridiko-politikoak. Lan honi ahalik eta azkarren heldu behar zaiola uste dugu L.H.E.M.aren errebindikazioak berehalako ekintza sindikalean birtualitatea izan dezan.

Alde honetatik komenigarria litzateke LHK-an gure presentzia egokitzea, CES-aren etorkizuna analisatzea eta EKA eta Nafarroan artean lan-harreman bateratzaileak bideratzeko modua ere analisatzea, kontutan izanik egungo banaketa juridiko-administratiboa.

4-3.- EUSKAL ESPARRU SOZIO-EKONOMIKOA.

19F-an LHEMari bultzada eman genion aipatu LHEMak Euskal esparru ekonomiko batean zeregin garrantzitsua izan zezan. Iritsi da lan horretan sakontzeko ordua eta baita 27Eko grebari jarraipena emateko ordua ere, euskal esparru sozio-ekonomikoa osatzen duten errebindikazioen bidez.

Esparru sozio-ekonomikoak bere baita biltzen ditu garapen-eredu, partehartze sozial eta gizarte-eredu berriei buruzko errebindikazioak; beraz, eraikuntza nazionalaren proiektuaren barruan kokatzen da eta ondorioz helburu estrategikoa duenez ikuspegi horretatik ekin behar zaio.

Honek ez du esan nahi **LABetik** une honetan hori lortzeko ezer ezin dugula egin; alderantziz, **gaur egun politika ekonomiko, industrial eta sozialean jokatzen ari dira euskal esparru ekonomikoko elementu garrantzitsuak eta politika horietan parte hartzeko obligazioa daukagu.**

Bilakaera sozial eta ekonomikoa inoiz ez da joaten euskarri juridikoekin batera; gure herriaren beharretara egokitzen ez den garapen-eredu egoki bat ez

4-3.- 19 F-an L.H.E.M.ari bultzada eman genion aipatu L.H.E.M.ak Euskal esparru ekonomiko batean zeregin garrantzitsua izan zezan. Lan horretan sakondu beharra dago eta baita 27 U-ko grebari

lortzeko behar besteko biderik ez egoteak ez du mugatu behar gure ekintza sindikala «garrantzitsua» dena negoziazio politikoaren ondorengo egunera. Egunero landu behar den aldaketa sozialaren alde borrokatzen dugu, gure parte hartzea eraikuntza nazionalaren ikuspegitik bideratuz.

4-3-1.- Berrindustrializazioa eta enplegua. Euskal esparru ekonomiko baten aldeko apustu honetan ondorengo hauexek dira ardatz nagusienetakoak.

Eraikuntza nazionalaren garapenean oinarri industrialak duen indarragatik.

Berrindustrializazioa, sare produktiboaren babesa eta garapena direlako egun enpleguaren beherakadari eusteko bide bakarrak.

Industria aniztua delako eredu ekonomiko egonkor, homogeen eta nazioarteko merkatuetan lehiatzeko baten oinarria, ikuspegi soberano eta independentista batetik begiratuta.

Beraz, **berrindustrializazio eta enpleguan egin beharreko lanak bi mailatan egin behar dira** eta, jakina, horiei behar bezala erantzun behar zaie:

- Sare produktiboaren deusestapenari gogor erantzunez. Honek gure ekintza sindikala erradikaltzera behartzen gaitu.
- E.L.M. tik alternatibak eskaintzeko gaitasuna izatea, ez bakarrik industri diseinuaren ardatz orokorrak finkatzen, baizik eta baita beste subjektu sozial, unibertsal, ekonomia sozial, erakunde publiko, mugimendu sozial eta abarrekin apustuak egiten, geurea izango den eredu sozial eta ekonomikoaren projektua lortu ahal izateko.

4-3-2.- Babes Sozialeko Euskal Esparrua. Hauxe dugu euskal eremu sozio-ekonomikoa bere osotasunean zuzkitzeko beste ardatza; honen bidez gizarte-eredu bat planteiatzen dugu eta baita ezberdintasun sozialak gainditzeko gauzatu behar den politika solidarioa ere.

Alor honetan, etengabeko prestazio-murrizketak, gizarte-segurantza publikoaren hondoratzeak, kapitalizazio pribatuak, osasun-erreformak, ... finantz kapitalaren interesen aldekoak dira eta alor horietan esku hartzera behartzen gaituzte.

Ez dugu onartzen gizarte duala, hau da, aberatsak gero eta aberatsago eta behartsuak gero eta behartsuago diren gizarte bikoitza.

Ondorioz ez dugu onartzen kalitatezko zerbitzuak dirudunen esku bakarrik egotea, izan ere gizarte demokratiko batek zerbitzu horiek gizarte osoari bermatu behar baitizkio.

Euskal Gizarte-segurantza eskatzea eta galdatzea beharrazkotzat daukagu dinamika sindikalean eta politika asistentziala negoziatzeari bidezkoa eta solidarioa deritzogu, eredu soziala jasaten ari den krisiaren aurrean.

Gure apustua argi dago:

- Euskal Gizarte-Segurantza bat sortzea.
- Sistema publikoan oinarritutako politika soziala.
- Diru-biltze politika enplegua sustatzeko eta errenten araberakoa.
- Iruzur enpresariala deusestatzea.
- Sistemaren kontrol soziala.
- Pentsioen mugak berrikustea.
- Borondatezko kapitalizazioa sistema publikoaren esparruan.

Gaur egun, mahai gainean prestazio osagarri eta pensio-fondoei, pribatuak nahiz publikoak, buruzko proposamen zehatzak ditugu; gogoeta sakona egin behar da, alor honetan sindikatuen ohizko planteiamenduekin bateratzailea

4-3-1.- Berrindustrializazioaren eta enpleguaren alde egiteko daukagun zereginak bi euskarri izango ditu funtsean: sare produktiboaren deuseztapen gero eta handiagoari gogor erantzun beharko dio, eta ELMaren gaitasun alternatiboa garatu beharko du.

4-3-2.- Ez dugu onartzen gizarte duala, hau da, aberatsak gero eta aberatsago eta behartsuak gero eta behartsuago izango dituen gizarte bikoitza. Ez dugu onartzen gizarte demokratiko batek guztientzat bermatu behar dituen kalitatezko zerbitzuak dirudunen esku bakarrik egotea.

izango dena, gizarte-segurantza publiko beraren bidez argiren bat emango diguna planteiamendu hauei estalduren komenentziaz eta aukeraz, euskal esparruan berari buruzko erabakiak eta negoziazioak garatzen diren bitartean.

4-3-3.- LHEMaren proiektu sindikal honek eta Euskal Esparru sozio-ekonomikoaren aldeko ekintza sindikalak gainditu egiten ditu estatuko sindikal gintzak sortu nahi dizkigun kontraesanak.

Esparru eta edukinen kontraesana, eztabaida eta kontraesan faltsuak dira, egun eremu ekonomiko eta laborala errebindikatzea estatuko politika ekonomikoaren diseinuaren eta bere menpe dagoen politika laboralaren aurka joatea da. Politika laborala hau interes zehatz batzuen baitan diseinatu dago, eta ez E.L.M.aren interesen alde; beraz, E.L.M.aren postura indartzen laguntzen duen guztiak balio du gaur egungo politika ekonomiko hau gauzatzen ari direnak ahultzeko, eta horiek ahultzen dituen oro baliagarri zaigu politika ekonomiko eta laborala alternatiboa sortzeko.

CCOOek eztabaida honetan duen jarrera oso oportunistak da, guztiz bateragarriak diren gauzetan kontraesanak sortu nahian dabil, bere onura propiorako, noski. Berarentzat gordetzen du edukinen aldeko borroka eremuen aldekoa sindikatu abertzaleen esku uzten duen bitartean.

Ezin gara horrelako probokazio batean erori. Guk E.L.M.aren interes nazionalak eta klasekoek erantzuna emango dien proiektu sindikala finkatzeko apustua egingo dugu.

LABen hazkuntza hortxe dago hain zuzen, esparruak eta edukinak proiektu sindikal nazionalan biltzean hain zuzen ere.

4-3-4.- Politika ekonomikoaren gaur egungo orientazioa aldatu beharra dago

Aurrera begira garatu nahi ditugun bi eskuhartze-bide hauek (Berrindustrializazio eta enplegua eta babes sozialerako markoa) Estatuko gobernuaren eta euskal gobernu autonomoen politika ekonomikoaren kontrako oposizio frontala daukate azpi-azpian.

Eraikuntza nazionalerako garapen-eredu bat errebindikatzen dugu guk. Eta beraz, proiektu honen aurka jartzen diren gobernu guztien proposamenei aurre egin behar zaie mobilizazioaren ikuspegitik eta eskuhartze sindikal jarrai eta kalitatezko baten bidez.

Politika ekonomikoaren oraingo norabideari aurrea emanez egingo diogu fronte, bide horrek erabakitzen baititu erreforma laborala, desbabessoziala eta sindikalismoaren suntsipena eta erantzun bipila emango diogu kontrareforma laborala, prestazio sozialen beharpenari eta politika ekonomikoaren dekretu bidezko ezarpenari.

4-3-5.- Aipatzen ari garen kontzeptu sozioekonomiko honek badu, gainera, azpimarratu beharreko beste konnotazio bat ere.

Planteatzen ari garen proiektu honek eskatzen du faktore soziala sartu behar dela politika ekonomikoaren diseinua egiterakoan eta sistema ekonomikoaren eta produkzio-sistemaren eraginkortasuna definitzeko orduan.

Partaidetza soziala, heziketa, E.L.M.aren koerantzukizuna dira guk behar ditugun baliabideak baldin eta gure alternatiba garatu eta premia sozialei erantzun bat eman, produkzio-indarrak baloratu eta espazio ekonomiko egonkor bat eratu nahi duen politika ekonomiko bat benetan planteatu nahi badugu, politika konexionatu bat eta nazioarteko mailaren testuinguruan arrakastaz partehartzeko ahalmena izango duena.

Partaidetza soziala, partaidetza sindikala, ez dira komunikatuen atzean jartzeko apaingarri hutsak; L.H.E.M. bat eta berrindustrializazio eta enpleguko benetako

4-3-4.- Politika ekonomikoaren oraingo norabideari aurre emanez egin nahi diogu aurre, bide horrek erabakitzen baititu erreforma laborala, desbabessoziala eta sindikalismoaren suntsipena.

4-3-5.- Partaidetza sozial eta sindikala ez da komunikatuetan jartzeko apaingarri huts bat; L.H.E.M. bat eta berrindustrializazio eta enpleguko benetako politika bat, etorkizunerako bide irekiak izango dituen politika bat egiteko baldintza ezinbestekoa da.

politika bat, etorkizunerako bide irekiak izango dituen politika bat egiteko ezinbesteko baldintza dira horiek.

4-3-6.- Ekintza Soziala radikalizatu

Radikaltasun hori hitzaren zentzurik osoenean ulertu nahi dugu. Inposizioaren kontrako oposizioa eta arazoaren muinari errotik helduko dion ekintza sindikal bat egitea.

Ezin dugu jarraitu axaleko iharduera sindikal bat egiten, gutxi prestatu eta guztiz zorrotza ez den eta ondo planifikaturik ez dagoen iharduera bat egiten.

Arlo honetan bide luzea dago oraindik egiteko, eta bi norabidetatik abiatuko den aurrera-urrats garrantzitsu bat eman beharko genuke gaurko honetan:

- **Partaidetzazko sindikalismo bat alde batetik.**

- **Ekintza sindikalaren plangintza bestetik, eta horrek esan nahi du zapaltzen ari garen arloaren ezagutza xehea behar dugula izan, mugitzen ari garen joka-eremu honek eskaintzen dizkigun aukera guztien ezagutza sakona eta garatu beharreko ekintza sindikalaren azterketa kolektiboa.**

Gizonezko eta emakumezko langileen esplotazioaren sustraia enpresan hasten da, eta ondoren beste arlo batzuetara zabaltzen da; beraz, esplotazio horri aurre egin eta gizarte alternatibo bat sortu nahi baldin badugu, **gaurko enpresa-eredu kapitalista ahuldu eta enpresariari bere arloan disputatu behar diogu produkzio-prozesua, aberastasunaren sorkuntza eta beronen banaketa zuzentzeko ahalmena.**

Enpresaren demokratizazioak, testuinguru honetan ulertuta, berealdiko garrantzia hartzen du, eta are handiagoa kontuan hartzen badugu sistema hori erabat ahul eta ahalge aurkitzen dela gaur egun enpresa kapitalista, bere buruera eta bere dinamika, bai produkzioaren eta bai maila sozialaren bilbean, etengabeko krisi baten kausa eta zio ez dela demostratzeko.

4-4.- EKINTZA SOZIALAREN BATASUNA.

4-4-1.- ELA

ELArekin batera ekintza sozial batu bat egiteak merezi du, horrekin, azkenean, diseinatutako ekintza sozialerako proiektua sendotuta ateratzen den neurrian; hori honela gertatzen den neurrian, ukondo ukondo jarriko gara gu ere ELAko lagunekin E.L.M.aren eta eraikuntza nazionalaren alde lanean.

E.S.B.ak ez du inoiz suposatuta izan, eta ez du sekula suposatuko, proiektu sozial bezala gu desegin behar izatea; gure proiektua biziberritzeko eta sendotzeko apostu bat izan beharko du aitzitik; hitzarmenetara helduko gara bai, baina gure nortasun-arrastoei eutsiz akordio guztietan, bai puntualetan eta bai orokorretan.

Horregatik, ahalik eta punturik gehienetan ELArekin ekintza sindikalaren batasunera heltzearen alde egingo dugu apostu. Eta gaur egun hala uste dugu, elkarrekin lan egitea posible dela aurreko sailean aipatu ditugun eskuhartze-ildo guztietan.

4-4-2.- CCOO

Komisionesez oraindik egiteko dauka eskuharpenerako lehentasunezko marko bezala euskal esparru baten aldeko aukera garbia.

Gaur egun ez da posible marko hori lortzeko ahalmenak oraindik ere gehiago hondatuko lukeen ekintza sindikalerako batasunik gauzatzea; beren aldetik planteamendu hau onartzen eta bereganatzen duten neurrian posible izango da

4-3-6.- Explotazioa enpresan hasten da, eta ondoren beste arlo batzuetara zabaltzen da; beraz, hasteko, gaurko enpresa-eredu kapitalista ahuldu eta, enpresariari, bere arloan disputatu behar diogu produkzio-prozesua, aberastasunaren sorkuntza eta beronen banaketa zuzentzeko ahalmena.

4-4.- ESBak ez du inoiz suposatuta izan, eta ez du sekula suposatuko, proiektu sozial bezala gu desegin egin behar izatea; gure proiektua biziberritzeko eta sendotzeko apostu bat izan beharko du aitzitik; hitzarmenetara helduko gara bai, baina gure nortasun-arrastoei eutsiz akordio guztietan, bai puntualetan eta bai orokorretan.

ekintza sindikalaren batasuna; hori hala ez den bitartean, gure arteko harremanak ekintza puntual eta sakabanatuetara bakarrik mugatuko dira.

5.- BEREHALA EGIN BEHARREKO LANAK

Planteatzen ari garen hau gaur egun posible izatea ala ez, hainbat faktoreren menpe dago:

Egoera objektiboa gure alde dago bi mailatan: alde batetik gobernu eta erakunde autonomoak kontrolatzen dituzten alderdien proposamenak sinisgarritasuna galtzen ari dira bizkor-bizkor gai ekonomiko eta laboralen arloan; bestalde, enplegu eta industrializazioko aldagaiak hondatzen ari dira gero eta gehiago.

Baina egoera objektiboak ez du ezertarako balio bere gain eragingo duen ekintza sindikalik ez dagoen bitartean.

Zentzu honetan, sindikatuak garatu duen ekintza sindikalari buruzko gogoeta sakon bat egin behar da, eta baliabideak koordinatu, militantzia baloratu eta egitura eraginkorrek emango dizkiguten neurriak hartu behar dira.

Asmo honen arabera berehala gauzatzeko planteatzen ditugun eginbeharrak hauek dira:

5-1.- Gure ekintza sindikaleko proiektua eztabaidatu, sekzio sindikaletaraino jaitsez.

5-2.- Diseinatutako ekintza sozialaren jarraibidearen barruan ekintza sindikal sektoriala garatzea.

5-3.- Ekintza sindikalaren arlo espezifikoetako lana sendotzea, adibidez: emakumeen arlokoa, gaztediaren, laneko osasunaren, lan-antolakuntzaren, lan sozialaren, baliourritasunen, etab.en arlokoak.

5-4.- Gero eta gehiago lan-merkatutik, prestazio sozialetatik, laneko baldintza «normalizatuetatik» baztertuta aurkitzen diren eta, beraz, elkarrizketarako ahalmenik gabe aurkitzen diren sektoreentzat gure sindikatoa erreferentzi puntu izateko modua lortzen saiatzea.

5-5.- Antolakuntza-dinamikak koordinatzen jakitea, horrek egitura astun eta burokratiko bat sortzea suposatutako behar duenik esan gabe hala ere.

Argi eduki behar dugu ezen sindikatoaren ekintzaren aniztasunak nahitanahiez behartzen gaituela elkarrekin ezinobeto erlazionatutako eskuhartze-mailak gureganatzera, bakoitzak bere konpromisu eta erantzukizunak egiteko behar duen autonomia onartuz beti ere.

5-6.- Jakina, guzti hori lortzeko heziketa egoki bat behar da, eta antolakuntza-makineria arin eta partearazle bat, ekintza sindikalaren diseinu, plangintza eta egikaritzan erantzukizun-maila pertsonal bat erakutsiko duena.

5.- Berehala egin beharreko lanak hauek dira: gure ekintza sindikaleko proiektua eztabaidatu, ekintza sindikal sektoriala garatu, arlo jakinetako lana sendotu, lan-merkatutik baztertuta aurkitzen diren sektoreentzako erreferentzi puntu izan, antolakuntzako dinamikak koordinatu. beraz, antolakuntza egoki bat eta antolakuntza-makineria arin eta partearazle bat behar ditugu.